

Zuhertza
eskubidearen alde

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 230. alea - 2018ko ekaina



**Eskuak elkar lotuta,
erabakitzekeo eskubidearen alde**



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko errelokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

ITZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak


ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Entena Puzpuzka Nº 2/05/049
NIVEL 2



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

230. alea - 2018ko ekaina

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Festetan animalien erabilera zalantzan”,
“Mila esker antzerkizale guztioi!”...

06

IRITZIA

Maider Zubikarai eta Baroja Collet, Debako Arte Eskolaren itxiera dela-eta

10

KRONIKA

Debako Gure Esku Dago: “Pozik gaude giza kateak izan duen arrakastarekin”

12

ELKARRIZKETA

Arbil Jubilatuen Elkarteko kideak, sarituak Gipuzkoako Joko Lehiaketan

14

B. GAZTEA

Ikasleen irteerak, Pablo Ron eta Ibai Ponce saskibaloj jokalariei elkarrizketa, inkesta...

Haurrentzako ekimenak bai? Eta Euskal Jaia?

Urtero bezala, uda partean ere hitzordu ezberdinak antolatu nahi ditu Zuhatza Euskara Elkartea. Uztailean, adibidez, etxeko txikientzako euskarazko aisialdi eskaintza aberastu nahian, pailazo edo antzerki emanaldiez gozatzeko aukera eman nahi du. Jakin badakigu harrera beroa egin ohi zaiela kultur emanaldi hauei urtero-urtero, baina elkartea herritarren babesa eta laguntza behar du hitzordu hauek txukun antolatu ahal izateko.

Era berean, konturatu orduko, begirada irailean ere jarrita dugu dagoeneko. Zergatik? Euskal Jaia ganoraz antolatze-lanei aurrez heldu behar zaielako. Irailaren 29an izango da ospakizuna, baina Zuhatzak jadanik abian du Euskal Jaia iragartzeko kartel lehiaketa.

Eskuen artean dauzkagun ekimen hauek aurrera ateratzeko, edota etor litezkeen proposamen berrien inguruan gogoetatxo egiteko, bi bilera antolatu ditu Zuhatzak. Ekainaren 26an egingo

dira batzarrak, elkartearen bulegoan. Lehenengoa 19:00etan, haurrentzako ekimenak lantzeko, eta bigarrena 20:00etan, Euskal Jaia hizpide hartuta. Bilera irekiak izango dira eta, hortaz, gonbidapena guzti-guztiori doakizue. Animatu eta zatoz zu ere, beharrezkoa zara eta! Goazen denon artean kultur ekimen txukun batzuk antolatzera!

Zuhatza Euskara Elkartea



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Hozkuntza, Hikitza Politika eta Kultura Sailak (Hozkuntza Politikarako Saiburordetza) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHiko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura:

Lukax Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Ander Salegi

Publizitatea:

Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Tirada:

1.400 ale

Maiztasuna:

Hilabetekaria

Inprimategia:

Euskalinpri

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.



Festetan animalien erabilera zalantzan

Joan den maiatzaren 11n Askekintzaren eskutik "Gurean" izenburuko dokumentala ikusteko aukera izan genuen Debako Kultur Elkartean.

Bertara hurbildu ginenok aukera izan genuen Askekintzak Euskal Herriko festetan lau urtez modu klandestinoan inoiz egin duen ikerketarik eta informazio-bilketarik handiena ikusteko.

Dokumentazio horrek argi erakus-

ten du festetan animaliak haien borondatearen kontra erabiltzen direla.

Guk, Debako Zezenketen Aurkako Taldetik, dei egiten dizuegu festetan animaliak erabiltzeari utz diezaiozuen. Bada garaia festak beste animaliak errespetatuz ospatzeko eta festetan animalien erabilera zalantzan jartzeko.

"Gurean" dokumentala ikusgai dago www.gureandokumentala.eus webgunean ekainetik aurrera.

Debako Zezenketen Aurkako Taldea



228 haur izango ditugu aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuetan

Kaixo, lagunok!

Maiatzarekin batera amaitu zen Kolorez Blai udalekuen izen-ematea, eta nahiz eta eguraldiak paisaia grisa erakutsi, gure irribarreetan kolorez beteriko ostadarra margotu duzue izena eman duzuen guztion artean. Aurten ere oso pozik gaude herriaren erantzunarekin eta izen-emate arrakastatsua izan da. Guztira 228 haur izango ditugu txokolate marrubizko ametsak kolore artean bizitzen eta, hau guztia posible egiteko, 15 *super* begirale izango

ditugu taldean!

Beraz, San Juan suak erre ditzala urteko kalteak eta uztailak ekar ditzala kolorez beteriko irriak!

Udalekuak uztailaren 2tik 27ra bitartean egingo dira, bi txandatan. Urtero bezala, aurrez gurasoentzako bilera egingo dugu. Ekainaren 29an (ostirala) izango da batzarra, 19:00etan Udaletxeko areto nagusian.

Mila esker guztioi eta laster arte!

Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea



Zuen zain egongo gara Bidezko Merkataritza Azokan

Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldeak Bidezko Merkataritza azoka txikia jarriko du datorren uztailaren 1ean (igandea), Itziarren. Goizeko 11:00etatik 14:00etara

egongo da zabalik.

Era berean, Deban, udaletxe azpian izango da, uztailaren 7an eta 8an.

Bi kasuetan, herrialde desberdinetako artisautza produktuak eta elikagaiak

egongo dira salgai.

Zuen zain egongo gara. Animatu eta etorri ikustera.

Eskerrik asko zuen arretarengatik.

Debako Kooperazio Taldea

Mila esker antzerkizale guztioi!

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu antzerkizale guztioi Goazek XXXII. Antzerki Astearen baitan antolatu dituen emaldietara etortzeagatik eta zuen berotasuna erakusteagatik. Estilo ezberdineko bederatzi ikuskizun izan ditugu aukeran, maiatzaren 25etik ekainaren 3ra bitartean ospatu dugun Antzerki Astean.

Datorren urtean ere elkarrekin izango garelakoan, ondo izan bien bitartean. Datorren urtera arte!

Goaz Antzerki Taldea



iritzia

Eskerrik asko, Txotxe



**IRAIA
AGIRREZABALA**

2018ko otsailaren 5a. Egunero bezala, 6:50etan Igorrek lanerakoan muxu eman eta esnatu nintzen. Irratia piztu eta Goya sariari banaketaren kronika. Horrela enteratu nintzen Joxe Martin Urrutia, *Txotxe*, aurreko gauean hil zela; Eneko Sagardoyk erakutsita koagatik, bere saria eskaini baitzion eta etxera bueltatu aurretik zendu baitzen.

Gertakari horrek oroitzapenen kutxa zabaltzeko balio izan dit eta hausnarketaren bat ere ekarri dit.

Nik ere *Txotxe* ezagutzeko pribilegioa eta plazera izan nuen. Berekin tratu handiena Elgoibarko Gaztetxean egindako maskara ikastaroan izan nuen. Beno, maskarak egiten hasi ginen, baina konturatu orduko hankapalotan genbiltzan eta ahotik sua botatzen. Azkenerako, ikastaro bat zena kale-antzerki

ikusgarri bihurtu zen: Zakarrak zakarrankan.

Duela hilabeteren bat, bai Durangon eta baita Debako Antzerki Astean ere omenalditxoren bat antolatzen ari zirela eta, ikastaroan parte hartu genuen artean bildu eta solasaldi interesgarri bat izan genuen; *Txotxe*ren gaitasuna pertsonengan eta euren gaitasunean sinestean zetzala eta proiektatzen zuen konfiantzak hegala ematen zizkigula pentsatutako hura egin ahal izateko.

Sekulako pena hartu nuen bere heriotzaren berri izan nuenean, baina oroitzapen hauek sekulako indarra ematen ari zaizkit. Ustekabean, garai hartan oinarritzko hainbat balore landu nituela iruditzen zait.

Zein garrantzitsua den besteak entzutea eta entzuten zaituztela ohartzea!! Konfiantzaren oinarrietako bat dela iruditzen zait.



2013ko udazkenean Itur Kalean margotutako murala.

Ilusioz, gogoz eta anbizioz eraikitzen dira proiektuak

Debako Eskulangintza Zentroak, 1983tik abian dagoenak, Debako Arte Eskola izan zuen aurrekari. Eskola 1970ean sortu zen eta hamarkada pasa iraun zuen. Euskal artearen zentro bat garatzeko gogoia izan zen hasierako ekimen haren iturburu eta bi funtzio zituen: bata, artea irakastea, eta bestea, artistek euren obra gara zezaten toki aproposa eskaintzea.

Ekimen hura Jorge Oteizarengandik sortu zen eta ideia horren inguruan Euskal Herriko artista entzutetsuenak bildu zituen; euren ezagutzak eta esperientziak ikasleekin partekatzen zituzten, eskola pertsona askoren bilera eta elkargune bihurtuz. Esan daiteke Oteizak Deban hezkuntza proiektu bat martxan jarri zuela. Garai hartan beharrezkoa ikusi zen herriarentzat beste hezkuntza eredu bat bultzatzea, eta gazteei beste heziketa eredu bat eta baloreak transmititzea, gure herri kultura oinarri hartuta.

Debako arte eskola Euskal Herri mailan gure tradizioei lotutako bost artisaufizio (zeramika, harlanketa, zur-lanketa, brontzearen fundizioa eta grabatu kalkografikoa) eskaintzen dituen eskola erreferentziala izan da eta, hein handi batean askotan gertatzen den bezala, kanpoan etxean baino garrantzi handiagoa izan du.

Hala ere, eskolak aspalditik ez ditu garai onak bizi, oso egoera prekarioan dago, bai azpiegiturari, bai bideragarri-

tasun ekonomikoari eta baita ikasle kopuruari dagokionez ere. Bestalde, hezkuntza sistema, artearen kontzeptua bera eta, oro har, jendartearen beharrak aldatu egin dira. Errealitatea hau da, eta ezin dugu garai hartan izan zenaren malenkonian erori, baina Debako ondare historiko eta kulturala denik ere ezin da ukatu.

Aspalditik izan da udalarentzat mahai gainean egon den gai bat, eta aurreko legegintzaldi ezberdinetan landu dena. EA udal gobernuan zegoen garaietan, arte eskola garai berrietara egokitzeko apustuan hezkuntza formalean txertatzeko ahalegin ezberdinak egin ziren, eta hau lortzeko zailtasun ezberdin asko egonik, dugun ondare kulturalaren errekonozimenduan, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza behintzat hein handi batean mantentzea lortu zen, eta Sasiolan ere proiektu proposamena landu zen, gune horrek duen potentziala ikusiz.

Aurreko legegintzaldian, berriz, ondare kultural hau balioan jartzeko helburuarekin, arte eskolaren norabidea eta etorkizuna berbideratzea izan zen erronka, ikusten baikenuen, egungo arte eta artisau munduaren errealitate eta beharrei ondo egokitzeko gero, berriro ere indarra eta erreferentzialtasuna berreskuratzeke eta inguruan dituen kultur eragileekin bat egiteko aukera zuela. Udal gobernu batek eduki behar duen anbizioa genuen, ametsak garatzeko proiektu

proposamena, alegia, Oteizaren hazia biziberritzeko ilusioa eta gogoia.

Bide honetan, Eusko Jaurlaritzarekin Gasteizen eta eskolan bertan bilera ezberdinak egin genituen. Diagnostikoa eta genuen proiektuaren erronka konpartitu genuen diru-laguntza gehiago ez jaisteko helburuarekin. Bestalde, GFAko Kultura departamentuaren laguntza eta elkarlanerako akordioarekin, norabide horretan bi ekinbide adostu genituen.

1.-Artelekuren testigua hartzea. Kulturako sorkuntza guneak lurraldean hedatzea izanik Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburua, Arteleku arte zentroak Txomin Eneako egoitza utzi behar zuenez, Litografiako eta Serigrafiako tailerrak Debako Arte Eskolan kokatzea. Artelekuren testigua hartu genuen, tailer hauei etorkizuna emanez, baina Debako arte eskola indartu eta artearen pedagogia ere sustatzen genuen. Erabaki hori gauzatzeko, eskolak zuen azpiegitura berri eta egokitu zen, tailer horiek beharrezko baldintzak bete zituzten. Eskola berritzeko eta egitasmoa pizteko urrats garrantzitsua izan zen.

2.-Debako arte eskolaren etorkizuneko ereduaren oinarriak lantzeko parte-hartze prozesua. Herriko, eskualdeko eta herrialdeko eremu ezberdinetan lanean dabiltzan profil ezberdinetako gazte eta helduek osatutako talde anitzak parte hartu zuen prozesuan, Elhuyar Aholkularitzaren gidaritzapean. Prozesuaren ibilbide guztiaren doku-

mentazioa udalean dago ikusi nahi duenarentzat, baina ondorio garbi batzuk atera ziren, eta horien artean garrantzitsuenetako bat hauxe: udalak proiektuaren aldeko apustua egitea ezinbestekoa dela. Aurrera begirako urratsak ere definitu eta adostu ziren.

Oraingo legegintzaldiko hiru urte hauetan, arte eskolaren etorkizuna makina bat aldiz jarri dugu mahai gainean, eta parte-hartze prozesuan ateratako ondorioak kontuan hartzeko eskatu. Definitu ziren aurrera begirako urratsei ekiteko Udal aurrekontuetan partida ere eskatu dugu, baita proposamen berririk baldin badago mahai gainean jartzeko eskatu ere. Baina ezer ere ez.

Orain ixtearen zurrumurrua dabilen honetan, berriro, maiatzeko udal plenoan gobernuari arte eskolarekiko asmoak zeintzuk diren galdetu genion, eta berriro ere ezer garbirik ez. Ez dago inolako planteamendurik, proiekturik, ez lanketarik. Hori da orain arteko ibilbidetik eta plenoko erantzunetatik ondorioztatzen duguna.

Uste dugu udal baten eginkizuna gure ondarea balioan jartzea dela, eta arte eskola herriko ondare bat da. Bere historia eta helburuak ezagututa, helburu horiek oraindik ere bizirik jarraitzen dute. Artearen sormenean oinarrituta, artea erakustez gain sortzaileentzako gune ere izan behar du eskolak, herrian eragina izango duena, herritari ekarpen kultural garrantzitsua eginez, berriro erreferentzialtasuna lortzeko anbizioz.

Gainera, Debak, Zumaia eta Mutrikurekin batera, GEOPARKEA osatzen du, balio natural eta kulturean oinarrituta, tokiko garapen iraunkor baterako tresna izan beharko lukeena.

Nola liteke, dugun ingurunea kontuan hartuta, karsta, bertan ditugun kobak, Lasturko harri ezberdinak, flyscha..., Geoparkea osatzen dutenak, geologian oinarrituak, harrian hain zuzen ere, eta harria ardatz duen eskola bakarra gurean egonda, udalak bide honetan proposamenik ez edukitzea?

*Maidar Zubikarai Beristain
(EHbilduko zinegotzia)*

Premiazko gogoetak

Debako Arte Eskolaren itxiera dela-eta

Udaletxetik hasita zurrumurrurik gabeko zabaldu da herritarren artean. Horren arabera, ezpatakada batez (inoiz baino hobeto esanda Deban) Eskulangintzarako Irakaskuntza Zentroa (Arte Eskola) garbitu nahi dute. Grabatu irakaslea naizenez, gaur esan digute estraofizialki aurtengo diru-laguntzaren erdia baino ez dela iritsiko, eta amaitutzat joko dela Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena. Jakin ahal izan dugunez, bilera bat baino gehiago egin dute bi erakundeek, ikastegiko langileen bizkar.

Denok dakigu gure Arte Eskola ziklo baten amaieran dagoela. 1983an ilusio handiz sortu zen, garai hartako beharriak betetzearren, eta denbora aurrera doa.

Hezkuntza edo kulturaren arloko beste edozein azpiegitura bezala, finantzabideren baten beharrez dago aurrera egin ahal izateko. Hasiera batean Kultura Sailaren bidez heltzen zen laguntza, baina handik gutxira Hezkuntza Sailarekin hobe izango zela aholkatu zuten. Eta ordutik hona hitzarmenak bide onetik joan dira, baina azkenaldian desoreka handiak sortu dira, eta Udala izan da bere kontura berdindu behar izan dituen.

Datu horiek benetakoak izan arren, **okerrena da oraingo kudeatzaileek** itxiera ez beste aukerarik ikusi ez izana. Itxiera da gure arestiko historiari kitoa ematea, eta baita gure kultura-ondarearen zati bat galtzea ere.

Aurreko legealdietan udala beti jabetu da Arte Eskolaren azpiegitura eta finantzaren arazoez. Eta horregatik Jesus Mari Agirrezabala alkatearen ekimenez lanak eta zerbitzuak bilatu ziren finantza-zio nahikoa lortu arte. Eta horrela, alternatiba gisa, Debako Urtzi Llano arkitektoaren proiektu bat aurkeztu zen, Sasiola birmoldatzeko, eta bertan kultura-gune berri bat egiteko.

Aurreko legealdian, Maidar Zubikarai alkate andrea, Arte Eskolarekin batera, eta Danobaten bitartez, eskolara azpiegitura berri bat sustatzen saiatu zen, baina azkenean bideraezina izan zen. Aldundiarekin jardun ondoren, grabatu arloko eraikina eraberritu zen, eta bi tailer

berri txertatu ziren, Artelekutik ekarriak, udako ikastaroak emateko diru-horniketaekin. Mainerrek eztabaida bat piztu zuen, Elhuyarren bitartez balizko aukerak aztertzeko, eta proiektua eraldatuz testuinguru berri batean birkokatzeko, non bat egingo zuten harriarekin loturiko gure kulturak eta Geoparkeak.

Egindako lanaren ondorioak Elhuyarrek bildu eta oraingo udalari aurkeztu zizkion, baina oraingo udalak ez du inolako interesik erakutsi.

Artelekutik ekarritako udako ikastaroak diru-horniketarik gabe geratu ziren iaz, 2017an, Aldundiak erretiratu zuelako; eta ez dugu jakiterik izan oraingo udalak mugimendurik egin ote duen.

Urte askotan entzun ditugu keax eskolara Debako jende gutxi joateagatik. Egia esateko, ez da erraza ofiziala ez den eskola batera sartzea, lanbide artisaua ikasteko. Hala ere, dituen **arriskuak eta guzti**, ikasleak leku askotatik etorri dira. Batzuentzat esperientzia bat izan da, beste batzuentzat bizitzaren gertaera garrantzitsua.

Gure ikasleen ondoan bizi gara luzaroan, beren porrotak pairatuz eta beren garaipenak, sariak eta goraiamenak ospatuz.

Niretzat ere Debako Arte Eskola bizi-pen aparta izan da, hura gabe nire ibilbide pertsonala eta artistikoa oso bestelakoa izango zatekeen.

Orain, nork bere esparrutik, Arte Eskolarekin bat egiteko, eta elkartasuna agertzeko unea da.

Baroja Collet





HAMAIAKOKOA aurkeztu du Debako EUSKARALDIAk

Badira hilabete batzuk Euskal Herrian Euskaraldiaren errota martxan dagoela, eta Debara ere iritsi zen errota horri jaten ematen dion olatua. Olatua pixkanaka-pixkanaka gorpuzten ari da, eta horren lekuko ekainaren 2an (larunbata) egindako Euskaraldiaren Debako Hamaiakokoaren aurkezpena. Bertan jai giroan hamaikako koloretsu eta anitza aurkeztu zen, koloretsua eta anitza baita gure herria.

Euskaraldia edonorentzat neurrikoa dela erakutsi zen, eta bakoitzak ahal duen eta nahi duen bezala bizi dezakeela gure hizkuntza zaharra. Eta hori nola? Parte hartu nahi duen oro

gustura eta ilusioz arituz. Ilusioa eta gogoia behar baitira bai *belarriprest* eta bai *ahobizi* izateko, bi ur horiek izango baitira gure errota elikatuko dutenak.

Denon artean josi zen ekitaldi goxo eta xumea. Zegokion bukaera emateko, *Txoriak Txori* eta *Euskal Herrian Euskaraz* abestu ondoren bertara hurbildu zirenen familia argazkia atera zen.

ESKERRIK ASKO, DEBA!

Euskaraldiaren Komunikazio Taldea



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak * Dietista * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Debako Musika Bandaren "Bertsoband" ikuskizuna, uztailaren 14an, kioskoan



Uda iritsi da eta, horrekin batera, uda osoan zehar egon ohi diren emanaldi, kontzertu eta ekintza ezberdinak hasiak dira dagoeneko. Aurten, Debako Musika Bandak ere kontzertu berezi bat eskaintzeko asmoa du.

BERTSOBAND izena du emanaldiak eta, bertan, bertsolaritza eta musika uztartuko ditugu bi bertsolari ospetsuren eskutik. Andoni Egaña eta Amets Arzallus izango dira gonbidatuak, eta gai-jartzaile lanetan Amaia Agirre arituko da. Kontzertua uztailaren 14an burutuko da, arratsaldeko 20:00etan, zumardiko kioskoan.

Bost doinu ezberdinen moldaketatik abiatuz, bertsolariek gai-jartzaileak ezarritako gai ezberdinen inguruan inprobisatu beharko dute; herriari buruzko zein bandaren inguruko gorabeherak entzun ahalko dira, besteak beste.

Bere ibilbide osoan zehar, Debako



Musika Bandak hainbat estilo landu eta hamaika emanaldi ezberdin eskaini ditu: Donostiako Jazzaldian parte hartetik, Pirritx eta Porrotx pailazoen kontzertua eskaintzera; musika klasikoko obretatik, pasodoble zein musikaletako abestiak eskaintzera. Hori dela eta, oraingoan euskal kulturarekin bat egin eta kontzertu berezi hau eskaini nahi dugu.

Beraz, bertsolaritza gustuko baduzue, edo horrelako emanaldi berezi bat ikusteko gogoia baduzue, ikuskizunaz gozatzen zaituztegu!

Debako Musika Banda

700 ikusle Kulunka taldeko kideen jaialdian



Aldats pilotalekua txiki gelditu da aurten ere Kulunka taldeko kideen ikasurte amaierako jaialdia ikusteko. Ekainaren 9an izan zen hitzordua eta oholtza gainean 4 eta 60 urte bitarteko 125 bat ikasle aritu ziren estilo ezberdineko koreografiak taularatzen (22 dantza guztira). Txalo zaparrada beroak jaso zituzten dantzariak, baita Naroa Gurutzeta, Alaitz Izaga eta Eneritz Zeberio irakasleek ere.



RIKARDO IDIAKEZ

Iraultza

Nago, ez ote garen (jaiki, whatsapp begiratu, dutxatu, gosaria prestatu, zer gosaldu pentsatu, gosaldu, haurrak esnatu, gobernatu, tupper-a prestatu, erlojua begiratu, ze egun den pentsatu, ipurdia estutu, aterkia hartu, lanera joan, kafea berotu, emaila bidali, erreparatu, emaila jaso, zerbait idatzi, telefonoz deitu, nagusia lausengatu, hasperenez konformatu, jarraitu, jarraitu, aspertu, bazkari pasara egin, eta buelta, eta buelta, eta erlojua begiratu, eta hogeita hirugarrenez whatsapp begiratu, halakoren baten lanetik atera, autoa hartu, ogia erosi, etxera iritsi, labadora ipini, oporretan pentsatu, afaldu, *First Dates* ikusi, azpilanak egin, lo egin eta) ibiltari lotiak izateko programatu gaituzten gizagaixoak.

Dabilen harriaren higaduraz ohartu ere egin gabe, esperientzien metaketa-lehian nor baino nor gabiltzan lasterkariak. Aurrera ez doana atzera omen. Eta bizikletaz ibiltzeko mugimendua behar, gainera. Egon hadi lo eta jango dunk mehe.

Nago, arnasa hartu eta albora begiratzea albo-kaltetzat daukagun garaiotan, gizakumeok egin genezakeen iraultza bakarra ez ote den gelditzea bera, kieta: nahikoa zaigula, eta planto egitea.

Agian, eta soilik agian, ez ote garen orduantxe geure bizimoduaren jabe izango. Geure ezina: etengabeko ekinaren sumina, ez ote den halako batean akituko. Egin-beharraren eginez, begietara begiratu eta gehiago ezin dugula egin aitortu.

Eta agian, soilik agian, izango garela, izan, eta sentitzen hasi: ez garela besterik, norbere bakea arnasteko jaiotako gizajainkoak.

Nagoen bada, egonean geldirik, zer gerta, zer suma, zer senti, askatuko nauen iraultzaren zain.

Debako Gure Esku Dago: "Pozik gaude giza kateak gure herrian izan duen arrakastarekin"

175.000 herritarrek baino gehiagok hartu zuten parte ekainaren 10erako Gure Esku Dago dinamika jarritako erronkan. Orain arte, egun bakarrean egin duten mobilizazio jendetsuena izan da. Donostia, Bilbo eta Gasteiz 201,9 kilometroko giza katean lotzea zen helburua, erabakitze eskubidearen aldeko aldarrikapena lau haizetara zabalduz, eta deialdiak uste baino harrera beroagoa izan zuen herritarren

partetik.

Debako Gure Esku Dago taldea "pozik" agertu da mobilizazioak izan duen erantzunarekin: "Pozik gaude giza kateak herrian izan duen arrakastarekin. Bete ditugu helburuak". "Debak 52 kilometroa osatzeko ardura izan zuen. Horretarako, 500 pertsona behar genituen saretuta; hau da, giza katean parte hartzeko izena emanda. Eta guztira 637 lagun saretu ziren

herrian -zehaztu du taldeak-. Gainera, azken momentuan, saretuta ez egon arren ere, jende ugari hurreratu zen eta, bide batez, gure ondoko kilometroan jende faltan zeudenei laguntza eman genien". Antolaketa lanetan 70 lagun aritu ziren.

Debako Gure Esku Dago taldeak "eskerrik beroenak" eman nahi dizkie ekimenean parte hartu duten eta laguntza eskaini duten herritar guztiei.



Kalean da Joseba Galarraga, 19 urteko kartzela zigorra beteta

Espainiako Auzitegi Nazionalak 37 urteko kartzela zigorra ezarri zion 2000. urtean Joseba Galarragari. 1981ean egin zuen ihes, baina, 1999an, Espainiako auzitegien aginduz, Mexikotik estraditatu egin zuten.

Hemeretzi urte egin ditu espetxean preso debarak, eta ekainaren 10ean irten zen Valladolideko kartzelatik.

Han zituen zain senide eta lagunak.

Valladolideko espetxea goizean utzi ostean, ekainaren 10ean bertan, arratsaldean, lehen harrera egin zitzaion Debako plaza zaharrean. Txalapartariak, dantzariak eta abeslariak parte hartu zuten ekitaldian eta Galarragak hitza hartu zuen bertaratu-takoen aurrean.



Irudia: Etxerat

Xabier Gantzarainek "Zuloa" plazaratu du, euskal arte garaikideari buruzko saiakera liburua



Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da Xabier Gantzarainen (Azkoitia, 1975) liburua. 2012an jaso zuen bekari esker kaleratu du, hain zuzen ere, argitalpena eta hogeitaz artistari buruzko saiakera lanak bildu ditu bertan. Maiatzaren 29an Donostian aurkeztu zuen egileak bere azken lana.

"Historia hurbila" aztertu duela kontatu zuen idazleak aurkezpen ekitaldian. "Tene Mujika beka historia hurbila aztertzeko izaten da, eta ni saiatu naiz historia hurbila artearen bitar-


tez aztertzen". Horretarako, 23 artelan aukeratu ditu, eta bakoitzari atal bat eskaini dio, "testuingurua erakutsiz, bizitzarekin lotuz, memoriarekin, gure zulo beltzarekin. Ez da artearen historia bat, ez da historia liburu bat ere: memoria ariketa bat da funtsean".

Gantzarainek azaldutakoaren arbera, aztertu dituen obra gehienak artista garaikideen lanak dira, "baina lehenagoko belaunaldiko bakarren bat edo beste ere badago". Jose Luis Zumeta, Jose Ramon Amondarain, Asier Mendizabal, Itziar Okariz eta Ibon Aranberri artisten lanak jarri zituen adibide gisa. "Horien lanaren bitartez saiatu naiz azken urteetako Euskal Herriko gizartea aztertzen".

"Zuloa" liburua salgai dago jadanik, 20 euroan.

"Harri bat poltsikoan" haurrentzako liburua kaleratu du Nerea Loiola debarrak

Zazpi eta hamar urte bitarteko umeentzako liburua argitaratu du Nerea Loiola Pikazak (Deba, 1985) Erein argitaletxearekin -Igelio Igela saillean-. "Harri bat poltsikoan" izenburupean ikusi du argia ipuinak eta dagoneko salgai dago, zazpi euroren truke. Nerea Loiolaren lehen liburua da hau, 56 orrialde ditu eta ilustrazio lanak Rocio Irigoyenek egin ditu.



Haitz Haundi elkartearen erakusketa, Itziar Burugorri eraikinean

Haitz Haundi Elkarte Artistikoak ikasturte amaierako erakusketa izan du ikusgai Debako Kultur Elkartearen eta, lehenbizikoz, datozen egunotan Itziar Burugorri eraikineko bigarren solairuan ere egongo da aukera elkarte-kideen lanak ikusteko. Ekainaren 30a bitartean izango da zabalik erakusketa: astegunetan 17:00etatik 18:00etara (astelehenean itxita), eta asteburuetan,

11:00etatik 14:00etara.

"Ederra dago!" izenburupean udaberri eta uda parterako Itziarren antolatutako kultur programaren baitan antolatuta da erakusketa hau. Era berean, egitarau horren barruan bestelako hamai-ka hitzordu ere egingo dira Itziarren. Ekainaren 29an, adibidez, MICEren **kontzertua** izango da, 22:00etan, Burugorri (5 euroan).



ITZIAR ARANA

Trans

Irunen ospatu zen Euskal Herriko bertsolari txapelketako saioan, Maialen Lujanbiok bertso txapelketetan egin diren bertso ederrenak sortu zituela entzun genuen komunikabideetan. Transexualitateaz ari zitzagula denok ulertu genuen, bertaratutakoek eta *pol-bora* bezala biralizatutako mezuekin bertsoak txalotu genituenok ere. Baina, ziur al zaudete transexualitateaz ari zaizkigunean badakigula zertaz ari diren? Lujanbiok kantatu zuen moduan: "gizona eta andrea nauzu/ ez andrea ez gizona/ nere inon ez egon nahia ote/ da zure ezinegona?".

Nire ezinegona, ez dakit Lujanbiorena ere hala izango zen, ezjakintasunak sortutakoa zenez, aspalditik gaia lantzen hasita nengoen, pertsonak desberdinak garen heinean aniztasun hori pixka bat gehiago ulertzeko, okerreko gorputzean jaio den pertsonaren estereotipoa gainditu asmoz. Honela, bidean aurkitu ditut Chrysallis elkarteak. Beraiei esker, aurpegi gehiago jarri dizkiegu transexualitate egoeran dauden pertsonen. Autobus laranjaren kanpainak ere ikasketa paregabea eman zigun: "Badira zakila duten neskek eta bulba duten mutilak, halaxe da!". Ikusitakoak ikusita, ez nago ni oso ziur denok hala denik ikusten dugunik.

Horretxegatik, Lujanbioren bertsoek sortu duten zalaparta sinestezina egiten zait; bat-batean, denok ulertzen dugu transexualitateaz. Hala bada, zeinen ondo! eta zeinen galduta nengon ni! Eskerrak, lagun batek iparrorratza eskaini zidan: Miquel Missé-ren "Transexualidades, otras miradas posibles" liburua.

Arbil Jubilatuen Elkartea etxean eta kanpoan

Diotenez, garai batean zaharren esperientziak bideratzen omen zituen herri bizitzaren arazo eta gorabeherak. Ezinbestekoa zuen herriak zaharren aholkua jasotzea, burubide zuzenez aurrera egitekotan.

Gero, boterea politikari eskolatuek eta aberatsek eskuratu zutenetik, zaharren esperientzia gutxietsi eta hauen iritzi eta aholkuei jaramonik ez egiten hasi zen jendea.

Zaharrak, ordea, hor zeuden. Beraz, nonbait kokatu behar eta, Zahar Etxeak eraikitzen joan dira alde guztietan, jubilatuek ostean zereginik gabe geratu den jendearentzat biltoki edo aparkaleku izan daitezten.

Gertatzen dena da jende hau bizi dela eta gauza dela ikasteko, pentsatzeko, eztabaidatzeko, herri bizitzaz arduratzeko; beraz, Zahar Etxeak, atsedeneku huts ez baizik eta era askotako aktibitateak burutzen dituen elkarte bilakatu dira.

Isilik egiten dute euren lana eta ustekabeen jakin dugu herrian, Debako Arbil Jubilatuek bost bikotek hartu dutela parte Gipuzkoako Joko Lehiaketako finalerdietan eta



horietako hiru bikotek finala irabazi dutela, bakoitzak bere joko arloan.

Berri horrek bultzatzen gaitu, goizeroko kafesnearen aitzakian, Joxemari Larrañaga "Palo"rekin kontu alditxo bat egitera; Prudentzio Arrizabalagarekin batera Joxemari baita joko jarduera hauen guztien euskarri eta gidari.

L.D.

Berriketan.- Joxemari, bazekiagu Prudentzio eta hi karta jokalarik trebeak zaretela. Baina noiztik antolatzen dizkiz JOKOAK Arbil Elkartek?

Joxemari.- Hi, ba, auskalo! Gu jubilatuek ginenerako, arratsaldero jarduten huen jendeak, andre eta gizon, kartetan. Tokan eta igel-jokoan ere berdin. Bakoitza bere gustuko joko klasean apuntatzen duk eta aurrera.

Eta lehiaketa kontu hori nola antolatzen duzue?

Gipuzkoako jubilatuen elkarteek elkarrekin harremanetan jarduten gaituk. Bi lehiaketa mota egiten dizkiagu: bata, herrikoa; etxean hasi eta bukatzen dena. Bestea, berriz, Gipuzkoako bailaren artekoa; finalerdia eta finala Donostiako Altzan ospatzen dituela.

Horrek bakoitza bere txotik mugitzeko aukera eta beharra sortuko dizkizue eta egutegi baten arabera zuen jarduera moldatu beharra.

Bai, baina ez gehiegi. Aisa moldatzen gara. Egutegiari dagokionean, berriz, urtero berdina denez, ohituak gaude.

Ze urte garaitan egiten duzue?

Irailean hasten ditugu Bailarakoak, herri bakoitzak bereak eginez. Udaberrian; Deba-Urki, Elgoibarren kartetan eta Deban

Igel-Jokoa eta Toka. Ondoren, Deba Behea-Urola Kosta; Elgoibarren kartetan eta Deban Toka eta Igel-jokoa. Eta, azkenik, Donostiako Altzan, Gipuzkoako finalerdia eta finalak, elkarrekin bazkaldu eta garaikurren banaketarekin festa batean bukatuz.

Hasieran aipatu dugun bezala ba omen dituzue Arbil Elkartean Gipuzkoako azken JOKO LEHIAKETAN txapeldun ateratako bikoteak.

Ba, bai. Bost bikote sartu ziren finalerdietan. Eloi Martinez eta Luis Mendizabal TOKAN eta Antonio Matias eta Eliseo Fernandez IGEL-JOKOAN finalerdietan bota zituzten. Txapeldun atera ziren Rosa eta Pilar Agirre ahizpak SEIKO URREAN, Rosa Manzisidor eta Mila Lazkano ESKOBAN eta Joxemari Arana eta Asun Manzisidor PUNTTUAN.

Bukaera polita eman diozue urteko jardunaldiari ekainaren 1ean herri bira umoretsua eginez.

Saiatu ginen. Aste biko jardunaldi trinkoak egin genituen udako beroak jendea hondartzara eramanez aurretik eta irabazia geneukan arratsalde-pasa on bat eta lortu genuen merienda txukun baten laguntzaz.

Txalo zuei eta ez etsi!



Kanadan jokatu den mundu mailako Crossfit txapelketaren finalean lehiatuko da Xabi Osa

Uztailaren 5etik 8ra bitartean *Wheel God Games* txapelketak jokatu dira Kanadako Collingwood hirian eta bertan lehiatuko da Xabi Osa debarra. 25 urterekin, mundu mailako Crossfit txapelketaren finalerako sailkatzea lortu du Osak; besoan desgaitasuna duten kirolarien modalitatean arituko da. Beste bost kirolari izango ditu parez pare.

Debako gaztea 2017ko irailean

hasi zen kirol diziplina hau ezagutzen. Zarauzko Basoa Crossfit gimnasioan entrenatzen da gaur egun.

Crossfit-a era koordinatua entrenatzeko teknika bat da, ariketa ezberdinak konbinatzen dituena -intentsitate handiz eta etengabe-. Ariketa honen oinarria zera da: diziplina ezberdinak erabiliz (halterofilia, atletismoa, gimnasia eta, batez ere, erresistentzia) gorputza entrenatzea.

“EuskarAbentura” espedizioa Debatik pasako da, uztailearen amaieran

Aurtengo uztailean Euskal Herriko zazpi probintziak zeharkatuko dituen *EuskarAbentura* espedizio gaztea antolatuko dute. 16 eta 17 urte bitarteko 120 bat gazte euskaldunek parte hartuko dute ekimenean, eta tartean debar bat ere badago (gidari lanetan arituko da).

Espedizioa oinez garatuko da, uztailearen 1etik 31ra. Mauletik abiatu eta Done Jakue bidea jarraituz, hiriburu guztietatik eta Unescok Gizateriaren Ondare izendatutako toki guztietatik

igaroaz, Getxoko Bizkaia Zubian amaituko da. Eta, ibilbide horretan, espedizioa Debatik ere pasako da (hilaren amaiera partean).

Euskararen erabilera sustatzeaz gain, *EuskarAbenturak* baditu beste xede batzuk, hala nola euskal lurraldea sakonago ezagutzea eta gazte euskaldunen sarea osatzea.

Berriketan aldizkariaren uztaileko alean izango duzue espedizio honen inguruko berri gehiago.

Mintzalagun programak agur esan dio ikasturteari

Aurten ere, pintxopotearen aitzaian elkartu ziren herriko mintzalagunen batzuk, egitasmoaren ikasturte amaiera ospatzeko. Ekainaren 14an bildu ziren, lagun giroan, betiko legez.

Urrian abiatu zuten programa eta harrezkero bi taldetan aritu dira euskarri elkarri emanez, astero hitzordua eginez. Uda partean atseden hartu ostean, ikasturte berriarekin batera helduko zaio berriz ere Mintzalaguna ekimenari. Bien bitartean, Zuhatzak eskerrak eman nahi dizkie egitasmoan parte hartu duten guzti-guztiei!



GILEN GARTZIA

Zenbat eta okerrago, hobeto!

Ez dakit ba! Gauzak okertzen hasten direnean, izaera suharragoa izan ohi dugunok, askotan esaten dugu: “Hobe horrela! Jendeak kontzientzia har dezan balio izango du!”. Hainbestetan pentsatu izan dut hori... Baina egungo testuinguruari erreparatzen diodanean, gauzak oker doazela argi ikus dezaket. Egoeraren inguruko irakurketan adostasuna erraz topa dezaket ia edonorekin; hala ere, espainiar estatuko hiritar disidente izateak prezio handia ordaintzea dakar oraindik. Lehenago, Euskal Herriko gauza zela, edota borroka armatuaren dinamikatik edo izango zela, onartzerantz helden ginen gure herrian. Baina heldu da begiak estaltzeari utzi eta burua argiz betetzeko ordua.

Zeren zain gaude? Eskubideen murrizketa arlo guztietan sistematikoki gertatzen den bitartean, gu inguratzen gaituen antsietate horri aurre egiteko ihesbide entretenigarriak bilatzen saiatzen gara. Ekonomikoki itotzen gaituzte eta arazo kolektiboa denari irtenbide indibiduala bilatzen saiatzen gara behin eta berriz. Lan erreformaren ondorioak latzak dira, etxebizitza bat eskuratzea amets bat, gure eskubideen defentsa delitua da, eskubideak urraturik dituztenen eskubideak defendatzea are okerragoa, naturarekiko harreman artifiziala naturalizatzen ari gara, burujabetasunaren galarera era baketsuan bizitzeko gai gara, lehenago gureak ziren zerbitzu eta ezagutza gehienak azpikontratatu ditugu...

Zein da gure jokamoldearen logika? Nik, egia esan, ez dakit, baina aldaketak konpromisoaren bidetik etorriko direla ziur nago; eta ez jarrera indibidualen batuketatik.

Berriketan Gartea

2018ko ekaina
Mendata BHIko Prentsa Tailerrear Sortua

Museum Cemento Rezola eta Albaola eragutjeko irteera

Maiatzaren 15ean, Gizarte mintegiaren ekimenez, Mendata BHIko ikasleek irteera izan zuten Añorgako Museum Cemento Rezolara eta Pasaiako Albaolara. Egun guztiko irteera izan zen: Debatik 8:30ean irten eta arratsaldeko 16:45ean itzuli ziren.

Lehenik, Añorgako museora joan ziren eta bertan bi taldetan banatu ziren. Kaskoak, lana egiteko betaurrekoak, txalekoa eta metalezko oinetakoak jantzita, talde bat lantegia ikustera joan zen bitartean, beste taldeak museoa ikusi zuen. Lantegiko laborategian esperimendu bat egin zu-

ten. Museoan, beriz, zementua nola egiten den azaldu zieten, baita zementu mota ezberdinak erakutsi ere.

Ondoren, Pasaiara joan ziren, bertan, txalupaz, Albaolara iristeko. Hiru taldetan banatu ziren, gelen arabera. Gela bakoitzak bertako irakasle bat izan zuen azalpenak emateko. Hainbat gauza azaldu zizkieten: baleontzien historia, San Juan naoareen erreplika –garai hartako teknologia erabiliz, 2020an bukatzea aurreikusten dute, ondoren Kanadara edo Ternuara bidaiara egin dezan... Eta bertako lantegia ere ikusi zuten.



Txalupaz itzuli ziren gero autobus geltokira. Ondoren, Zubietara joan ziren bazkaltzera eta bertan tarte batez egon ostean, Debara itzuli ziren. Ikasleek ongi pasa zutela eta errepikatze moduko irteera izan zela esan zuten.

Antzerkia Ingeleser Eibarren

Mendata BHIko 3. eta 4. mailako ikasleak Eibarko Unibertsitatera joan ziren maiatzaren 2an, bertan ingelesezko antzezlan bat ikustera.

Goizeko 9:00etan irten ziren Debatik. Bi aktore gaztek antzeztu zuten obra eta ikasleek ere parte hartzeko aukera izan zuten, antzerkiaren gozatuz eta ingelesez praktikatuz. Zortzi ikasle aukeratu zituzten antzez-

laneko zenbait eszenatan parte hartzeko. Antzerkia oso dibertigarria izan zen, erabili zuten metodologiarengatik gehienbat.

Emanaldia ikusle guztientzat egokituta zegoen. Izan ere, ikasleek ez bazuten ulertzen, antzezleak mimikaz baliatzen ziren ikusleek guztia ulertzat.

Buelta eguerdiko 12:00etan izan



zen eta eskolako azken bi orduak eman zituzten ikasleek.

Ba al jenekien?

Herrialde eskandinaviarrak, zoriotsuenak

Zoriontasunaren inguruan aurten egindako Nazioarteko Txostenaren arabera, herrialde eskandinaviarrak dira munduko zoriotsuenak. Finlandia eta Norvegia daude lehen postuetan (Norvegia zen iaz buru, baina bigarren postura jaitzi da aurten). Aipatutakoez gain, honako hauek daude 10 zoriotsueneren artean: Danimarka, Islandia, Suitza, Herbehere-

ak, Kanada, Zeelanda Berria, Suedia eta Australia.

Nazio Batuen Garapen Jasangarirako Irtenbideen Sareak urtero egiten du txostena, honako faktoreak kontuan hartuta: biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina (BPG), babes soziala, bizi-itxaropena, askatasun soziala, eskuzabaltasuna eta ustelkeriarik eza. Bi datu gehiago



ematearren: Frantzia 23. postuan dago; Espainia, 36.ean.

Pablo Ron eta Ibai Ponce saskibaloitzaolariak



*“Hasieran ezin genuen pase onik eman
eta orain partidak irabazten ditugu”*

Mendata BHIko 4. mailako Ibai Ponce eta Pablo Ron ikasleak elkarrizketatu ditugu oraingo honetan. Debako Debasket Saskibaloitzaolari Klubean jokatzen dute biek eta euren esperientzia edota taldearen dinamika pixka bat gehiago ezagutzeko aukera izan dugu solasaldi honetan.

Nolatan bururatu zitzazuen Debasket Taldean izena ematea?

Ez genuen ezer egiten eta lagun batzuek taldean izena eman zutenean gu ere animatu ginen.

Nola jakin zenuten herrian saskibaloitzaoldea sortu zela?

Gurasoek eta lagunek esan ziguten.

Zer moduzko giroa duzue aldagelan?

Bikaina, kriston barreak botatzen ditugu.

Denboraldiaren hasieratik gaur egun arte, gorabeherarik edo aldaketarik egon al da?

Hasieratik hona aldaketa handiak egon dira. Hasieran ezin genuen pase onik eman, adibidez, eta orain partidak irabazten ditugu.

Astean zehar zenbat entrenamendu izaten dituzue?

Bi egunetan entrenatzen gara, astearte

eta ostegunetan.

Zenbat partida jokatzen dituzue denboraldi osoan?

Hogeita lau partida guztira.

Entrenamenduekin jarraituko al duzue uda partean ere?

Bai, campus batean parte hartzeko izena emango dugu.

Zenbat kide zarete taldean?

15 inguru.

Zenbat partida irabazi dituzue orain artean? Eta zenbat galdu?

Zazpi irabazi ditugu eta hamabost galdu; oraindik bi falta dira.

Debasket Taldean apuntatzeko gomen-dioa egingo zenukete? Zergatik?

Bai, jendea behar baitugu taldean. Eta nesken talde bat sortzea ere gustatuko litzaiguke.

Elkarriazketa

Inkesta

Agur ikasturteari

Ikasturtea amaitzean dago eta uda hastear. Hori dela eta, Mendata institutuko maila eta adin ezberdineko ikasle batzuei egin diegu hila-bete honetako inkesta. Ikasturtea, oporrak... izan ditugu hizpide:

- 1.- Zer moduz joan zaizu aurtengo ikasturtea?
- 2.- Zein ikasgai iruditu zaizu errazena? Eta zailena?
- 3.- Zer plan daukazu udarako?
- 4.- Nora gustatuko litzaizuke bidaiatzea uda honetan?
- 5.- Debako edo Itziarko jaietan hemen egongo zara?
- 6.- Udan zerbait egin nahi duzu zehazki?
- 7.- Notaren batez damutzen al zara?
- 8.- Oporrak merezita daukazula uste duzu?

Unai Duran



- 1.- Ondo.
- 2.- Fisika eta Kimika. Erljioa.
- 3.- Ingelera eta portugesa ikastea.
- 4.- Azoreetara noa.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Ez.

Unax Alvarez



- 1.- Ondo.
- 2.- Gizarte. Fisika eta Kimika.
- 3.- Parranda asko egitea.
- 4.- New Yorkera.
- 5.- Noski.
- 6.- Ez.
- 7.- Bai, Fisika eta Kimikakoaz.
- 8.- Bai...


Xabi Barrera




- 1.- Ondo.
- 2.- Musika eta Plastika.
- 3.- Udalekueara noa.
- 4.- Karibera joango nintzateke.
- 5.- Bai.
- 6.- Hondartzara joan.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.

Denbora-Pasak

Labirintoa



Aurkitu zazpi ezberdintasunak





Jon Goikoetxea

- 1.- Ondo.
- 2.- Erlijioa. Plastika.
- 3.- Udalekuetara noa.
- 4.- Zeelanda Berrira.
- 5.- Noski.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



Martina Soto

- 1.- Ondo.
- 2.- Erlijioa. Euskara.
- 3.- Udalekuetara joatea.
- 4.- Islandiara.
- 5.- Bai.
- 6.- Lagunekin egon.
- 7.- Ez.
- 8.- Batek daki...



Nerea Urbizu

- 1.- Ondo.
- 2.- Musika edo Euskara. Gizarte.
- 3.- Udalekuetara eta oporretara joatea.
- 4.- Maldivetara.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



Haizea Urbiete

- 1.- Ondo.
- 2.- Erlijioa. Ingelesa.
- 3.- Udalekuetara joatea.
- 4.- Ameriketara.
- 5.- Itziarkoetan bai, baina Debakoetan ez.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



Irati Arrozua

- 1.- Ondo.
- 2.- Erlijioa. Ingelesa.
- 3.- Parranda asko egitea.
- 4.- Greziara.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



Sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2 | 9 | | | 6 | | |
| | 9 | | | 2 | | | 4 | |
| 4 | | | | | 8 | | | 7 |
| | 8 | | | | 1 | | | |
| | | 1 | | 4 | | 7 | | |
| | | | 2 | | | | 6 | |
| 5 | | | 3 | | | | | 6 |
| | 6 | | | 8 | | | | 9 |
| | | 7 | | | 6 | 2 | | |

Asmakizuna

Bi hanka izan arren ezin dugu biderik burutu, baina gizona gu gabe ezin da inon aurkeztu. Zer da?

Txistea

Ume batek bere aitari:
-Aita, aita, aita!!
Utziko al didazu telebista ikusten?
-Bai, baina ez piztu!

*-Prakak
Asmakizunaren erantzuna:*



Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

EKAINAK 23, LARUNBATA

-22:00. **San Juan Bezpera.** Urtero bezala, sua piztuko da Deban, Itziarren eta Lasturren.

EKAINAK 24, IGANDEA

-11:00. **San Juan eguna,** Santa Katalinan.

EKAINAK 28, OSTEGUNA

-22:00. **San Pedro bezpera.** Zahagi erretzea eta dantzak plaza zaharrean.

EKAINAK 29, OSTIRALA

-20:00. **Kontzertua: Los Garrapata** (Bilbo), Ondargain tabernan.

-22:00. **Kontzertua: MICE** (Miren Narbaiza), Itziarko Burugorri aretoan (5 euro).

-22:00. **Dantza ikuskizuna: "Hariak-Ertza"**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

UZTAILAK 1, IGANDEA

-20:00. **Organo kontzertua:** Juan de la Rubia, Santa Maria elizan.

UZTAILAK 6, OSTIRALA

-22:00. **"Erradikalak gara"** (Bertsoa/klowna), plaza zaharrean (Iturri ondoan).

UZTAILAK 8, IGANDEA

-18:00. **Ipuin kontaketa: Iñaki Carretero,** Lasturko aterpetxean. Ondoren, txokolate beroa eskainiko dute.

UZTAILAK 13, OSTIRALA

-22:00. **Antzerkia: "Andante-Markeliñe"**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

UZTAILAK 14, LARUNBATA

-20:00. **"Bertsobanda":** Debako Banda, Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsoariekin. Zumardiko Kioskoan.

UZTAILAK 20, OSTIRALA

-22:00. **Begiradak 2018.** Herriko irudigile, dantzari, bertsolari eta idazleen arteko elkarlanetik sortutako ekitaldia, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

Udako kirol kanpaina

Udaleko Kirol Sailak udako kirol kanpaina zabaldu berri du: surf, bodyboard, xakea, Stand Up Paddle... Izena emateko eta informazio gehiagorako, jo www.deba.eus atarira edo Turismo Bulegora.

Kartel lehiaketa

-Irailaren 29an ospatuko dugun **aro berriko XXI. Euskal Jairako kartel lehiaketa** abiatu du Zuhatza Euskara Elkarteak.

Partaideek lan bakarra aurkeztu dezakete lehiaketara eta kartelek derrigorrez testu hau eraman beharko dute: **"Euskal Jaia 2018 Deba"** (euskara hutsean). Lanaren neurria A2 tamainan kalitatez argitaratzeko modukoa izan behar da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika librea). Kartela euskarri fisikoan nahiz digitalean aurkez daiteke, uztailearen 9a baino lehen.

Kartel irabazlea herritarrek hautatuko dute, botoen bidez, erakusketa batean, eta 300 euro jasoko ditu irabazleak. Informazio gehiagorako deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira.

Udako ordutegia udal liburutegian

-Ekainaren 25etik aurrera, Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du. *Liburutegi orokorra: astelehenean ostiralerara, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

| | | |
|---|--|---|
|  | ZAINZAKO BOTIKA Egunez, 09:00etatik 22:00etara Zalduegi: ekainak 22, 23, 24. uztailak 2, 3, 4, 5. Burgoa Zuazo: uztailak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19. <small>22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)</small> | DEBAKO BOTIKAK ZALDUEGI: 669 262 201 BURGOA ZUAZO: 667 338 890 Larunbat goizetan beti bat irekita: <small>ZALDUEGI: ekainak 23 eta 30</small> <small>BURGOA ZUAZO: uztaileak 7 eta 14</small> 9:30 - 13:00 |
|---|--|---|

| | |
|---|--|
|  <p>Uzuri optika audio www.uzurioptika.com</p> | ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN  <p>Ostolaza, 7 20820 DEBA Tel: 943192192</p> |
|---|--|

| | | |
|--|---|---|
|  <p>Taxi Alain Deba LIZ.-ZK.: 3 636 135 008 www.alain.taxideba.eus alain@taxideba.eus</p> | ZERBITZUAK ▶ Partikularrentzako zerbitzuak egunean 24 orduz ▶ Enpresentzako zerbitzuak egunean 24 orduz ▶ Aireportuetara joan-etorriak ▶ Ekitaldiatarako luxuzko zerbitzua | EZAUGARRIAK ▶ Larruzko eserleku berogarriak ▶ wifi-konexioa ▶ Android eta iOS gailuentzako kargagailuak |
|--|---|---|

**KLASE PARTIKULARRAK
UDAN ERE BAI!**

**LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA
(D.B.H.)-KO MAILA GUZTIAK!** (3. eta 4.D.B.H. izan ezik)

Matematika, Euskara, Ingelesa, Gaztelania, ...
- TALDE TXIKIETAN -

NON? AGIRRETXE KALEA 2
672 71 08 59

MARJE CASTRO IRIBARREN



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615 **DEBA**

**Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!**

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

GENOVEVA
Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

**JOXEAN GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

BURU - ZURI
Taberna

- Otarkekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pinxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

k
kutxabank

Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

Calbeton

JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPIZKOA) Fax: 943 192 482



- Autokarabanen, karabanen eta furgoneten salmenta, alokairua eta konponketa
- Tailer zerbitzua, epe luzerako parkinga, garbiketa-gunea eta ur karga eta deskargak
- Karabanin eta kanpin osagai-denda
- Homologazioak, kanperizazioak...
- 4.000 m²-tik gorako instalazioak



Itxaspe Auzoa, 3 –20829 Itziar (Gipuzkoa)
943 05 08 03 – 664 685897
www.inercaravan.eus

**BADATUZ
KOLOREZ BLAI UDALEKUAK**

GURASOENTZAKO BILERA:
EKAINAREN 29AN (OSTIRALA), 19:00ETAN
UDALETXEKO ARETO NAGUSIAN

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: koloreanitz@gmail.com 632043322